


## Euskadiko hamar gaztetik zortzik uste dute bizitzan zehar pertsona batek bere aukera sexuala aldatu dezakeela


**Gazte gehienak sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren alde daude, bai eta sexu aldaketaren alde ere**

Ekainaren 28an **LGTB (lesbiana, gay, transexual eta bisexualak) Harrotasunaren Nazioarteko Eguna** dela eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) aditzera ematen ditu gai honi buruzko datu batzuk. Datuok Gazteen Euskal Behatokiak 2016ko lehen hiruhilekoan eginiko azken ikerketatik datoz. Ikerketa horretan Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gazte elkarrizketatu ziren. Beren erantzunak aurreko urteetan horrenbeste gaztek emandako erantzunekin alderatu ditugu.


2016ko ikerketaren arabera, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazte gehienek uste dute pertsona batek bere bizitzan zehar bere aukera sexuala aldatu ahal duela eta harremanak izan gizonekin zein emakumeekin (hori uste baitute % 83k). Ideia horrekin ados daudenak nabarmen gehitu dira 2012tik 2016ra



Bestalde, gazte gehienak sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren alde agertu dira (% 91), bai eta sexu aldaketaren aldekoak ere (% 86). Bi iritzi horiek hedatuago daude orain 2008an edota 2012an baino.



Aztertutako hiru ideia horiei buruz gizon eta emakume gazteek dituzten iritziak aztertu ondoren, ondoriozta dezakegu identitate sexualari buruzko jarrera irekiagoa dela emakume gazteen artean, gizon gazteen artean baino.



Aurkeztutako datuak [Euskadiko gazteak](#) izeneko txostenen bildumatik datoz. Txosten horiek lau urtean behin burutzen ditu Gazteen Euskal Behatokiak. Hemen aurkeztu ditugun 2016ko datuak "Euskadiko gazteak 2016" txostenari dagozkio. Txosten hori lantzen ari da eta oraindik argitaratu gabe dago.